

1.1.2 GAIAREN LANKETA

> Nor, nolakoa, zer zara zu?



- Nolakoa zara zu?

- Nire laguna honelakoa da: nire lagun baten deskripzioa

Helburuak

- Hainbat adjetibo euskaraz ikastea.
- Adjetiboen esanahia ulertzea eta noiz erabili behar diren jakitea.
- Adjetiboak euskaraz erabiltzea.
- Norbera ez den beste pertsona bat deskribatzea.
- Hirugarren pertsona lantzea.

Prozedura

- Umeei "Nire laguna honelako da" fitxa-multzo bana eman.
- Joxek bidali duela esan.
- Hezitzaileak dokumentua poliki eta intonazio egokia emanez irakurri. Dokumentuak argi bideratuko du hezitzailea.
- Umeek dokumentuan eskatzen diren lanak bete:
 - **Laguna aukeratu:** hezitzaileak erabakiko du zoriz egin edo ume bakoitzak bere laguna aukeratuko duen. Umeek lagun bana izango dute eta bere deskripzioa egingo dute.
 - **Laguna marraztu:** umeek egokitu zaien edo aukeratu duten laguna marraztu.
 - **Datu orokorrak bete:** aurkezpeneko "eta zuek nortzuk zarete?" fitxaz baliatuz, umeek lagunaren datu orokorrak bete.
 - **Neska edo mutila; jaioberria, umea, gaztea edo zaharra:** fitxa jarraituz, laguna nolakoa den esan. Aukeratu eta idatzi.
 - **Aurpegia:** fitxa jarraituz, laguna nolakoa den esan. Aukeratu eta idatzi.
 - **Ezaugarri fisikoak:** fitxa jarraituz, lagunaren ezaugarri fisikoak deskribatu. Aukeratu eta idatzi.
 - **Ezaugarri psikikoak:** fitxa jarraituz, lagunaren ezaugarri psikologikoak deskribatu. Aukeratu eta idatzi.
 - **Testua osatu:** hutsuneak betez, testua osatu, eta gero, kopia. Iratiren adibidea dago lana errazteko.